EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN (UEMA) ARTEKO HITZARMENA, 2026. URTEAN EUSKARAREN ERABILERA SOZIALERAKO PROGRAMAK NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UDALERRIETAN GAUZATZEKO.

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana Ollo Hualde andrea, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilaria, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz.

Bestetik, Martin Aramendi Arana, NAN zk. [redacted] duena eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA), lehendakaria dena; egoitza Aulesti (Bizkaia), eta IFZ: 2000017J duena; haren izenean eta ordezkaritzan erakundearen estatutuetan ezarritakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalorde nahikoa du.

Parte-hartzaileek, ordezkari gisa eta adostasunez, hitzarmen hau sinatu dute Euskararen erabilera sozialerako programa Nafarroako Foru Komunitateko udalerrietan garatzeko.

A) XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea, 2026. urtean Euskararen erabilera sozialerako programak Nafarroako Foru Komunitateko udalerrietan gauzatzeko xedez.

CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNIKATEA (UEMA) PARA PROGRAMAS DE USO SOCIAL DEL EUSKERA EN ENTIDADES LOCALES DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA EN EL AÑO 2026.

REUNIDAS

De una parte, D. ª Ana Ollo Hualde, Consejera del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra, en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto Foral 239/2023, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra.

De otra parte, Martin Aramendi Arana, DNI [redacted] presidente de Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), con sede en Aulesti (Vizcaya) y NIF 2000017J, en su nombre y representación con poderes suficientes para la celebración de este acto en virtud de lo establecido en los estatutos de su asociación.

Las personas intervinientes, en la representación que ostentan y de mutuo acuerdo, formalizan el presente convenio para el desarrollo de la programación de uso social del Euskera en entidades locales de la Comunidad Foral de Navarra.

A) OBJETO

El presente convenio tiene por objeto establecer las bases generales de la colaboración entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), con el fin de posibilitar el desarrollo de programas de uso social del Euskera en entidades locales de la Comunidad Foral de Navarra durante 2026.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) euskararen normalizazioan aritzen den erakunde publikoa da. 1991n sortu zen eta bere lan-esparruan Nafarroako 23 udalerri daude. UEMAren helburu nagusia da udalerri horietako herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz egitea da.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) es una entidad pública dedicada a la normalización del euskera. Fue creada en 1991 y en su ámbito de actuación se encuentran 23 municipios navarros. El objetivo principal de UEMA es que toda la vida social, pública y privada, que llevan a cabo los ciudadanos de dichas entidades, se desarrolle en euskera.

Hitzarmen honen xedea ez da Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen osotasuna finantzatzea eta ez ditu inolaz ere Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) bestelako jarduerak finantzatzen. Honako hauek lagunduko ditu: Udaletako euskararen erabilera planak "Kemen" metodologiaren bidez berritzea; udalerriei euskararen inguruko aholkularitza ematea; udalerrietan kulturartekotasuna garatzeko proiektua; udalerrietara etorri berrientzako harrera protokoloak; eta udalerriei itzulpen zerbitzua ematea.

El presente convenio no está destinado a financiar la totalidad de la iniciativa de Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea y en ningún caso financia otro tipo de actividades de Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA). Subvencionará la renovación de los planes de uso del euskera de los ayuntamientos mediante la metodología "Kemen"; asesoramiento sobre el euskera a los ayuntamientos; proyecto de interculturalidad en entidades locales; protocolos de acogida para personas recién llegadas a los municipios; y ofrecer servicio de traducción a los municipios

B) ZIOEN AZALPENA

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Euskararen erabilera sustatzea dutela helburu komuna eta elkarren beharra dutela aipaturiko proiektuak Nafarroan garatu ahal izateko.

2. Alde biek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Ambas instituciones exponen:

1. Que comparten el objetivo de promover el uso social del euskera y que se necesitan mutuamente para poder desarrollar dichos proyectos en Navarra.

2. Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1.- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

2.- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1.2

C) NORMATIVA APLICABLE

El presente convenio se regirá por todo lo establecido en:

1.- La Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

2.- La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que en su artículo 1.2 establece los

artikuluan ezartzen da zein diren Foru Legearen helburu nagusiak: herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea; euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz; eta euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

objetivos esenciales de la misma: amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskera y definir los instrumentos para hacerlo efectivo; proteger la recuperación y el desarrollo del euskera en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso; y garantizar el uso y la enseñanza del euskera con arreglo a principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, de acuerdo con la realidad sociolingüística de Navarra.

3.- 240/2023 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena. Erakundeari dagozkion eginkizunen artean honako hauek daude: euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

3.- El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, le asigna a éste las siguientes funciones, entre otras: realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4.- 2023-2027 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak honako hau jasotzen du, besteak beste: euskara sustatzea komunikabideen arloan, helduen euskalduntzean eta gizarte eta kultura bizitzan, batik bat gazteei zuzendutako programetan. Orobat, Erakunde publikoekin eginiko hitzarmenei jarraitutasuna eman edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.

4.- El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2023-2027 recoge, entre otros, el compromiso de fomento del euskera en los medios de comunicación, enseñanza del euskera a personas adultas, vida social y cultural, de manera especial programas dirigidos a la población más joven. Asimismo, se recoge la necesidad de dar continuidad a los convenios con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público, con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.

5.- 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, honako izen hau duen diru-saila duena: B30002 B3200 4610 334100 “(E) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekiko hitzarmena, euskararen erabilera sozialerako programak toki-entitateetan egiteko”, 50.000,00 euroko zuzkidura duena. Dokumentu honek xede hori betetzen du.

5.- La Ley Foral 16/2025, de 22 de diciembre, de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2026, que contempla la partida nominativa B30002 B3200 4610 334100 “(E) Convenio con Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea para programas de uso social del Euskera en EELL”, dotada con 50.000,00 euros. El presente documento da cumplimiento a dicho objetivo.

D) HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagungarriak diren gastuak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 30a bitarte sortutakoak izanen dira, eta justifikatzeko epea bukatu baino lehen ordaindutakoak (urriaren 10a).

D) DURACIÓN DEL CONVENIO

La vigencia del presente convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2026.

Serán gastos subvencionables los generados entre el 1 de enero de 2026 y el 30 de septiembre de 2026, y pagados antes de la finalización del plazo de justificación (10 de octubre).

E) AURREKONTUA

Aurrekontua 50.000 euro izanen dira, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren B30002 B3200 4610 334100 "(E) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekiko hitzarmena, euskararen erabilera sozialerako programak toki-entitateetan egiteko" izeneko diru-sailaren kargura.

E) PRESUPUESTO

El presupuesto será de 50.000 euros, con cargo a la partida B30002 B3200 4610 334100 "(E) Convenio con Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea para programas de uso social del Euskera en EELL" de los Presupuestos Generales de Navarra para 2026.

F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

Honako jarduera hauek diruz lagunduko dira:
- Udaletako euskararen erabilera planak "Kemen" metodologiaren bidez berritzea.
- Udalerriei euskararen inguruko aholkularitza ematea.
- Udalerrietan kulturartekotasuna garatzeko proiektua.
- Udalerrietara etorri berrientzako harrera protokoloak.
- Udalerriei itzulpen zerbitzua ematea

F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR

Se subvencionarán las siguientes actividades:
- Renovación de los planes de uso del euskera de los ayuntamientos mediante la metodología "Kemen".
- Asesoramiento sobre el euskera a los ayuntamientos.
- Proyecto de interculturalidad en entidades locales.
- Protocolos de acogida para personas recién llegadas a los municipios.
- Servicio de traducción a los municipios

G) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

Dirulaguntzaren justifikazioa, 11/2005 Foru Legeak, azaroaren 9koak, Dirulaguntzen gainekoak ezarritako epeetan eginen da ondoren zehazten diren dokumentuen bidez:

a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztuko da, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta. Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 10a izanen da.

G) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra, y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. El último día para la presentación de dichos documentos será el 10 de octubre de 2026.

b) Langile gastuak justifikatzeko honako egiaztagiri hauen bidez justifikatuko dira:

- Dirulaguntza honen xede den proiektuari loturiko langileen zerrenda eta nominak. Bertan, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) langileek egitasmoari emandako orduak zerrendatuko dira edo egotzitako lanaldiaren ehunekoa adieraziko da, proiektuari eskainitako denboraren arabera.
- Langile horien Gizarte Segurantzako kotizazioei dagozkien egiaztagiriak.
- Nominen eta gizarte-segurantzaren ordainagiriak, bai eta PFEZ atxikipenenak ere.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak atxikiko dira, bai eta ordainketa agiriak ere.

d) Langile gastuak eta bestelako gastu zuzenak zerrendatuta agertuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data.

e) Balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZa) gastua ez da konputatuko, zerga berreskuratu ezin duten entitateetan izan ezik.

f)

Egindako gastutzat joko da, oro har, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 30a bitarte sortutakoa eta justifikazio epea bukatu baino lehen benetan ordaindu dena (urriaren 10a). Aurrekoa gorabehera, ez da eskatuko frogagiriak aurkezteko data baino lehen ordaindu ezin diren finantza, tributu eta gizarte-segurantzaren gastuak benetan ordainduak izatea, horren arrazoia baldin bada likidatzeko borondatezko aldia oraindik irekita ez egotea.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartzen dutelarik. Jarduera zergen

b) La justificación de los gastos de personal se acreditará mediante la presentación de los siguientes documentos:

- Relación nominal y nóminas de las personas trabajadoras de Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), imputadas a la presente subvención indicando, la relación de horas reales dedicadas al proyecto o el porcentaje de imputación en función de su dedicación al proyecto.
- Justificantes correspondientes a las cotizaciones de la Seguridad Social de estas personas.
- Justificantes de pago de las nóminas y la seguridad social, así como de las retenciones por IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

d) Tanto los gastos de personal como los gastos directos deberán presentarse mediante una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago.

e) No se computará el gasto del impuesto sobre el valor añadido (IVA), salvo en el caso de las entidades que no puedan recuperarlo.

Con carácter general, se entenderá por gasto realizado el generado entre el 1 de enero de 2026 y el 30 de septiembre de 2026, y pagado antes de la finalización del plazo de justificación (10 de octubre). No obstante, no se exigirá que los gastos financieros, tributarios y de seguridad social que no puedan abonarse con anterioridad a la fecha de presentación de los justificantes hayan sido pagados por causa de que el período voluntario de liquidación no esté aún abierto.

Las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos contemplando, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en que la actividad

ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), 2026ko urriaren 10erako egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera.

Hitzarmen honen I. eranskinean zehaztutako atal bakoitzari ezarritako zenbatekoak ez dira lotesleak izango. Hau da, diruz lagundutako jardueraren baten gastua hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, soberan gelditutako zenbatekoa eranskinean zehaztutako beste atal batzuetara mugitu ahal izanen da, betiere gastuak dagozkion ordainagiriekin egiaztatzen badira, emandako dirulaguntzaren muga gainditu gabe eta laguntzaren helburuak bete badira.

Baldin gastuen azkeneko justifikazioa ez bada onartutako aurrekontuaren guztirako zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez dela izan, ez da ulertuko onuradunak ez duela bete dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Dirulaguntzak ematen dituen organoak erabakiko du, nolanahi ere, ea gastuen justifikazioa bateragarria den deialdiaren xedea benetan gauzatzearekin.

Deialdi honen baitan diruz laguntzen den helburua bete dela ulertzeko, egiaztatu egin behar da ezen proposatutako jarduera bere osotasunean gauzatu dela; horrela izan ezean, jasoko den zenbatekoa gutxitu eginen da, gauzatze mailarekiko modu proportzionalean gutxitu ere.

H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza epe bakar batean ordainduko da, aldez aurretik 2026ko irailaren 30era arte egindako gastuen ordainketa-agiriak aurkeztuta. Emandako dirulaguntza justifikatutako kopuruetara egokituko da, emandako urteko dirulaguntzaren erabateko zenbatekoa gainditu gabe.

estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, para el 10 de octubre de 2026, una Memoria final del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos.

Los importes establecidos para cada apartado subvencionable en el anexo I del presente convenio no tendrán carácter vinculante, de forma que, si el coste de alguna de las actividades subvencionadas resultara inferior al previsto inicialmente, el exceso de cuantía presupuestado podrá aplicarse a otros de los apartados contemplados, siempre y cuando los costes se avalen con los correspondientes documentos de pago, sin superar, en ningún caso, el límite de la subvención concedida y se hayan cumplido los objetivos y finalidad de la ayuda.

En el caso de que la justificación final del gasto total no alcance el importe total del presupuesto aceptado, pero a pesar de ello se acredite por la entidad beneficiaria el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, no se considerará que incumple con la obligación de justificación de la subvención. El órgano concedente valorará, en todo caso, si la justificación de los gastos es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Se entenderá que el objeto de subvención de la convocatoria está cumplido cuando se haya acreditado, la ejecución de la totalidad de la actividad propuesta. En caso contrario, la cantidad a percibir se aminorará proporcionalmente a dicha ejecución.

H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en un único plazo tras la justificación de los gastos realizados hasta el 30 de septiembre de 2026. El importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada sin que pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

I) GARDENTASUNA

1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien % 20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro.

Horretarako, II. eranskinean jasotzen den estekaren bidez aurkeztu beharko da adierazpena. Aurkeztu beharreko dokumentuen ereduak tramitean bertan eskuratzen ahal dira.

2. Onuradun guztiek aitortu behar dute zer egoeratan dauden gardentasunaren betebeharraren inguruan. Onuradunak gardentasun betebeharra bete behar ez badu hirugarren puntuan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, izapidean bertan (II. eranskina) adieraztea nahikoa izanen da.

3. I)1. atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio-zifra.

b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra.

4. Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den

I) TRANSPARENCIA

1. Las entidades privadas a las que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20 % del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

La declaración deberá presentarse a través del enlace recogido en el anexo II, que, asimismo, permitirá el acceso a los modelos de la documentación que sea necesario presentar.

2. Todas las entidades beneficiarias deberán declarar si están sujetas o no a transparencia. En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos en el tercer apartado, será suficiente con comunicarlo en ese mismo trámite (Anexo II).

3. A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado I)1., se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) La cifra de negocio del año anterior.

b) En su caso, la cifra de negocio aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

4. Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos, deberán comunicar en el plazo de un

informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.

d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori II. eranskinean zehaztutako estekaren bidez aurkeztuko zaio Nafarroako Gobernuari. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 5.1 artikuluarekin bat, igorritako dokumentuetan ezin izanen da inolako datu pertsonalik agertu (sinadura elektronikorik edo eskuzkorik, NAN zenbakirik, helbiderik).

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, gardentasunaren izapidean bertan, entitateak identifikatu beharko du zer dirulaguntzatan eta zer espediente zenbakirekin aurkeztu zuen informazioa.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko

mes contado desde la notificación de la resolución de concesión la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

La información señalada deberá ser presentada al Gobierno de Navarra mediante el enlace recogido en el anexo II. Asimismo, de acuerdo con el artículo 5.1. del Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, los documentos presentados no deben contener ningún tipo de dato personal (firma electrónica o manuscrita, DNI, dirección).

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, en el mismo trámite de transparencia, la entidad deberá identificar en qué convocatoria y con qué número de expediente presentó la información.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un

errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por ésta de las obligaciones de transparencia previstas en el Título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.

J) AZPIKONTRATAZIOA

Erakunde onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango ditu diruz lagundutako jarduerak, osorik edo zati batean, eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 26. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu.

J) SUBCONTRATACIÓN

La entidad beneficiaria podrá subcontratar con terceros, de manera total o parcial, las actividades subvencionadas, quedando sometida al cumplimiento de los requisitos previstos en el artículo 26 de la Ley Foral de Subvenciones.

K) EZ BETETZEAK, ITZULKETAK ETA ARAU-HAUESTAK

a) Ez-betetze arintzat joko dira irregulartasun formalei dagozkienak; halakoetan, dirua partez itzuli beharra egonen da, edo ordainketa partzialik ez egitea, ez-betetzearen muntaren arabera. Ez-betetze astuntzat joko dira, berriz, funtsezko kontuei dagozkienak; halakoetan, arau orokor gisa, dirua osorik itzuli beharko da, edo ez da deus ere ordainduko. Batean nahiz bestean berandutze-interesak eskatzen ahalko dira, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako kasuetan. Unitate kudeatzaileak mailakatzea egiteko komenigarriak iruditzen zaizkion irizpideak ezartzen ahalko ditu.

b) Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da.

K) INCUMPLIMIENTOS, REINTEGROS E INFRACCIONES

a) Se considerarán incumplimientos leves los referidos a irregularidades formales, en cuyo caso procederán reintegros o ausencia de abonos parciales proporcionales a dichos incumplimientos, e incumplimientos graves los referidos a cuestiones sustantivas, en cuyo caso, la regla general será el reintegro o ausencia de abono total, sin perjuicio en ambos casos de la exigencia de interés de demora en los supuestos establecidos en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre. La unidad gestora podrá establecer los criterios de graduación que estime oportunos.

b) En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el título IV de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

L) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari dirulaguntzaren onespenaren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamen hau Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

Euskarabidearekin partekatuko da hemen sinatutakoarekin zerikusia duten ekitaldietatik ateratzen den informazioa eta material grafikoa.

L) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

Se compartirá con Euskarabidea la información y el material gráfico resultante de los actos que se lleven a cabo relacionados con lo aquí firmado.

M) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

M) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada

Iruñean, sinadura digitalaren egunean

En Pamplona a la fecha de la firma digital

MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO DEPARTAMENTUA / CONSEJERA DEL DEPARTAMENTO MEMORIA Y CONVIVENCIA, ACCIÓN EXTERIOR Y EUSKARA	UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEKO (UEMA) LEHENDAKARIA / PRESIDENTE DE UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA (UEMA)
	
Ana Ollo Hualde	Martin Aramendi Arana

- ***ERANSKINA / ANEXO I***

2026ko aurrekontua / Presupuesto de 2026

NAFARROAKO AURREKONTUA		
1	**Langileen gastuak**	**Zenbatekoa € (BEZ barne)**
1.1	Udaletako euskararen erabilera planak (diagnosia + diseinua)	**32.032,00**
1.2	Aholkularitza	**3.000,00**
1.3	Kulturartekotasuna	**6.000,00**
1.4	Harrera protokoloak	**4.500,00**
1.5	Itzulpen zerbitzua	**3.500,00**
2	**Bestelakoak**	**Zenbatekoa € (BEZ barne)**
2.1	ELIA itzultzailea	**968,00**
GUZTIRA		**50.000,00**

PRESUPUESTO DE NAVARRA		
1	**Gastos de personal**	**Importe € (IVA incluido)**
1.1	Planes de uso del euskera de los ayuntamientos (diagnóstico + diseño)	**32.032,00**
1.2	Asesoramiento	**3.000,00**
1.3	Interculturalidad	**6.000,00**
1.4	Protocolo de acogida	**4.500,00**
1.5	Servicio de traducción	**3.500,00**
2	**Otros**	**Importe € (IVA incluido)**
2.1	Traductor ELIA	**968,00**
GUZTIRA		**50.000,00**

II. ERANSKINA / ANEXO II

Gardentasuna betebeharra / Obligación de transparencia

Gardentasun betebeharra ez dutenek bete beharreko ziurtagiria aurkezteko / Presentación de la declaración de no estar sujeto a la obligación de transparencia.